



## Eskola kirola – 2017-2018ko lehiaketa araudia

### IGERIKETA

#### 1. EGUNAK

JARDUNALDIA	DATA	ORDUTEGIA-MAILA	IGERILEKUA
1. JARDUNALDIA	2017ko urriaren 4an	16:15 Benjaminurrekoak/Benj/Kimu/ 1. urteko haurrak	MENDIZORROTZA 25M
1. JARDUNALDIA	2017ko urriaren 11an	16.30 2. urteko haurrak	MENDIZORROTZA 25E
2. JARDUNALDIA	2017ko azaroaren 2an	16.30 2. urteko haurrak	MENDIZORROTZA 25E
2. JARDUNALDIA	2017ko azaroaren 16an	16:15 Benjaminurrekoak/Benj/Kimu/ 1. urteko haurrak	MENDIZORROTZA 25M
3. JARDUNALDIA	2018ko urtarrilaren 20an	16.30 2. urteko haurrak	MENDIZORROTZA 25E
3. JARDUNALDIA	2018ko urtarrilaren 27an	16:15 Benjaminurrekoak/Benj/Kimu/ 1. urteko haurrak	MENDIZORROTZA 25M
TXAPELKETAREN HONDOKO JAURDUNALDIA	2018ko otsailaren 3an	17:00 Haurrak	MENDIZORROTZA 25M
4. JARDUNALDIA	2018ko otsailaren 17an	16:15 Benjaminurrekoak/Benj/Kimu/ 1. urteko haurrak	ESTADIO
4. JARDUNALDIA	2018ko otsailaren 24an	16.30 2. urteko haurrak	MENDIZORROTZA 25E
5. JARDUNALDIA	2018ko martxoaren 24an	16:15 Benjaminurrekoak/Benj/Kimu/ Haurrak	MENDIZORROTZA 25M
6. JARDUNALDIA	2018ko apirilaren 21ean	10:15 Benjaminurrekoak/Benj/Kimu/ Haurrak	MENDIZORROTZA 25M
7. JARDUNALDIA	2018ko maitzaren 19an	16:15 Benjaminurrekoak/Benj/Kimu/ Haurrak	MENDIZORROTZA 25M

Arabako Igeriketa Elkarteak eskola jardunaldiak egiteko hautatutako egoitzak / instalazioak / igerilekuak arabako hiriburuan daude, bat izan ezik, 5. jardunaldia laudion izango baita.

#### 2. ORDUTEGIAK

2.1.- Igerilekua ordubete lehenago erabili ahal izango da, berotzeko ariketak egiteko.



### **3. PARTE HARTZEKO ADINAK ETA KATEGORIAK**

#### **MUTILAK ETA NESKAK**

**BENJAMINAURREKOAK JAIOTZA URTEAK: 2010 eta 2011      MUTILAK ETA NESKAK**  
***Kategoria honetako jarduerak ERAKUSTALDIAK BESTERIK EZ DIRA IZANGO.***

**BENJAMINAK              JAIOTZA URTEAK: 2008 eta 2009      MUTILAK ETA NESKAK**

**KIMUAK                  JAIOTZA URTEAK: 2006 eta 2007      MUTILAK ETA NESKAK**

**HAURRAK                JAIOTZA URTEAK: 2004 eta 2005      MUTILAK ETA NESKAK**

**KADETEAK              JAIOTZA URTEAK: 2002 eta 2003      MUTILAK ETA NESKAK**

### **4. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

4.1. Edozein kirol erakundek parte hartu ahal izango du arabako eskolarteko txapelketetan (2017/2018 denboraldia), baldin eta kategoria bakoitzerako ezarritako baldintzak betetzen baditu eta eskola kirolean inskribatuta badago.

4.2. Arabako Igeriketa Elkartek bere menpeko igeriketako kirol klubei besterik ez die uzten eskolarteko txapelketetan parte hartzen; hala ere, espresuki gonbidatuz gero, Arabako herrietako udal eskolek ere parte har dezakete, baldin eta igeriketan modu antolatuan eta Arabako igeriketa elkartek ikuskaturik aritzen badira.

4.3. Eskola ume guztiak adinaren arabera dagokien kategorian lehiatu beharko dira nahitaez; beraz, ezin izango da inola ere kategoriaz aldatu.

### **5. LEHIAKETAKO BALDINTZAK**

#### **a) INSTALAZIOAK eta MATERIALA**

Arabako Igeriketa Elkartek zuzendaritza batzordean eta batzarrean bilduta onetsiko ditu txapelketa honetako jardunaldi bakoitzerako egoitzak.

#### **b) ARBITROEN ETA KRONOMETRATZAILEEN ELKARGOA**

Lehiaketa ondo kontrolatzeko beharrezkoa den epaile eta kronometratzaileen epaimahai teknikoa izendatzeaz arduratuko da Arabako Igeriketa Elkartea, arbitroen elkargoaren bitartez (halaxe xedatzen du aieren lehiaketa araudi orokorrak).

#### **c) PARTE HARTZAILEEN JANTZIAK**

Kirol klub edo erakunde bakoitzak askatasuna izango du bere lehiatzaileak klubaren kolore edo ikurrekin ekipatzeko.

#### **d) EMAITZEN JAKINARAZPENA**

Arabako Igeriketa Elkartea, Idazkaritza Teknikoaren bidez, emaitzen aktak egiteaz arduratuko da, eta horiek garaiz eta behar bezala argitaratuko dira FAN/AIEren web orrian.



#### e) LEHIAKETA EGUTEGIAREN ALDAKETAK

Lehiaketa egutegiko programazioan zerbait aldatu ahal izateko, ezinbesteko kasuen ondorio izan behar da hori, eta aurretik Arabako Igeriketa Elkartearen zuzendaritza batzordeak onetsi beharko du eta behar adinako aurrerapenaz jakinarazi beharko dio arabako foru aldundiko kirol zerbitzuari.

#### 6. LEHIAKETA ARAUTEGI OROKORRA

6.1. Kirolari bakoitzak banakako probetan parte hartuko du, dagokion kategoria (benjaminak, kimuak edo haurrak) eta jaiotza urtea kontuan izanda.

6.2. Kirolariak beren klubaren ordezkari moduan arituko dira banakako probetan.

Benjaminen kategorian (1., 3., 4., 6. eta 7. jardunaldiak, eta 5. jardunaldia – Laudio C.I. taldea bakarrik), kirolari bakoitzak, jardunaldi bakoitzeko, proba BAKARREAN eman ahalko du izena.

Kimuetan eta haurretan, igerilari bakoitzak, 2., 3., 4., 5. eta 6. jardunaldietan, GEHIENEZ ERE proba BAKARREAN parte hartu ahalko du, 400 libreetan, 400 estiloetan, emakumezkoen 800 libreetan edo gizonezkoen 1.500 libreetan, eta proba horietan parte hartu ezean, GEHIENEZ ERE BI probatan.

Haurretan eta kimuetan, igerilari bakoitzak 1. eta 7. jardunaldietan parte hartu ahalko du, GEHIENEZ ERE BI probatan.

6.3. Kirolariak beren klubaren ordezkari moduan arituko dira erreleboko probetan.

Klub bakoitzak bi errelebo aurkeztu ahal izango ditu proba bakoitzeko.

6.4. Ez da onartuko lehiaketa arautegiko proba bakoitzean programatuta ez dauden kategorietako kirolariek osaturiko erreleborik.

6.5. Benjamin kategoriako errelebo mistoetan, bi mutil eta bi neska jardungo dira igerian, eta erreleboan mutila eta neska, hurrenkera horretan, txandakatuko dira.

6.6. Arabako eskolarteko igeriketa txapelketan parte hartu ahal izateko, kirolari guztiek eskola lizentzia lortu behar dute, zeina Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak izapidetu eta, ondoren, Arabako Igeriketa Elkarateak balioztatuko baitu.

6.7. Benjaminurrekoen kategorian, erakustaldiak egingo dira 1., 3., 5., 6. eta 7. jardunaldietan. probak 25 metrokoak eta serie barnekoak izango dira; ez da denbora ofiziala neurtuko, ez eta emaitzen aktarik egingo ere:

- 1., 3., 6. eta 7. jardunaldietan, Gasteizko klubetako benjaminurreko kategorian dauden kirolariek soilik egin dezakete erakustaldia, eta beti beren klubak antolatutako proban.
- 5. jardunaldian, Laudioko igeriketa klubeko benjaminurreko kategorian dauden kirolariak soilik lehiatu ahal izango dira.
- Arabako beste herri batzuetako benjaminurreko kategoriako kirolariek, esaterako Agurain, Guardia (Arabako Errioxa) edo Amurriokoek, ezingo dute erakustaldirik egin, ezin baitira herritik atera; gainera, ez da egingo herri horietan txapelketako jardunaldi bat bera ere.

Benjamin kategoriak 7 jardunaldietako 6tan parte hartuko du –1., 3., 4., 5., 6. eta 7. jardunaldietan–, eta ez du parte hartuko, inola ere ez, 2. jardunaldian, ez baitago probarik programatu kategorია horretarako; bestalde, 5. jardunaldian, Laudio Igeriketa Klubekoek bakarrik parte hartu ahalko dute.

Kimuen eta haurren kategoriak txapelketako jardunaldi guztietan lehiatu ahalko dira.



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

www.araba.eus

6.8. Serieak erlojuz kontrako sistemaren bidez antolatuko dira.

6.9. Lizentziak bikoiztu, datuak faltsutu edo lizentziarik gabe parte hartuz gero, igerilaria kanporatu egingo da eskolarteko txapelketatik.

## **7. IZEN-EMATEAK**

7.1. Lehiaketa eta jardunaldi bakoitzerako izena emateko ISIS programa lehiaketaren aurreko asteko asteazkenetik (17:00etatik aurrera) lehiaketaren asteko asteazkenera arte (17:00ak arte) konfiguratuta eta irekita egongo da.

7.2.- Izen emateak ISIS programaren bidez egingo da (EIEFren intraneta).

7.3. FAN/AIEren egutegiko BI lehiaketa asteburu berean badira, dena aste bakoitzaren asteartera eta ordu berera aurreratuko da.

7.4 Kluben batek gaizki eginez gero izen emateren bat, ezabatu egingo da izen emate hori.

7.5. Arabako Igeriketa Elkartek marka pertsonalak kontuan izanda taxututako zerrenda zein serieen zerrenda osoa behar besteko denborarekin argitaratuko ditu, bere web orrian –[www.alavesanatacion.org](http://www.alavesanatacion.org)-, halaxe xedatzen baitu AIEren lehiaketa arautegiak.

## **8. SAILKAPENAK**

8.1. Sailkapenak jaiotza urteen eta kategoriaren arabera prestatuko dira. benjaminurrekoen kategorian ez da egongo ez puntuaziorik ez sailkapenik.

8.2. ISIS eredu oinarri hartuta egingo dira emaitzen aktak.

## **9. ARABAKO ESKOLARTEKO MARKARIK ONENAK**

Arabako Igeriketa Elkarteko zuzendaritza teknikoak prestatuko du Arabako eskolarteko markarik onenen taula, eta haren web orrian –[www.alavesanatacion.org](http://www.alavesanatacion.org)- argitaratuko da.

## **10. 2017-2018 ESKOLA KIROLEKO ESKOLA LIZENTZIAK IZAPIDETZEA.**

**2017-2018** txapelketan parte hartu eta Arabako Foru Aldundiak kirol zerbitzuaren bidez xede horretarako ezartzen dituen dirulaguntzen onuradun izan nahi duten erakunde edo klub guztiek Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol sailean izena eman beharko dute, bai eta programa horretarako dirulaguntza eskaera aurkeztu ere.

### **ERAKUNDE EDO KLUBAREN IZENA EMATEKO ORRIA**

Eskola Kiroleko programan parte hartu nahi duen erakunde edo klub orok asmo horren berri eman beharko du. horretarako, xede horrekin prestatutako erakunde edo klubaren izena emateko orria beteko du, ondoren Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak izapidetuko duena.

### **LIZENTZIAK IZAPIDETZEA**

Lizentziak Arabako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuan izapidetuko dira. behin izapidetuta, lizentziaren kopia Arabako Igeriketa Elkartearen aurkeztu beharko da beraien sistema informatikoan balioztatze aldera, izan ere, baldintza hori betetzea ezinbestekoa da eskola lehiaketetan izena eman ahal izateko.



▶ Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava  
▶

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

## **11. DIZIPLINA ARAUDIA**

391/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa izango da aplikagarria.

**ARAUTEGI HONEK XEDATZEN EZ DUEN GUZTIA ESKOLAKO KIROLARI BURUZKO UZTAILAREN 1EKO 125/2008 DEKRETUAK ARAUTUKO DU, ETA DEKRETU HORREK XEDATZEN EZ DUENA, BERRIZ, ARABAKO IGERIKETA ELKARTEAREN LEHIAKETA ARAUTEGIAK.**